

Trantsizioko utopia

ANNA BARSEGHIAN

“Ez dakigu, oraindik, zein bereziak izan zitezkeen 80ko hamarkada eta 90eko hamarkadaren lehenengo zatia munduko artearen garapenerako. Baina, Armeniarentzat, behintzat, azken urteok izan duten balio sozial, moral, psikologiko eta kulturala izugarria izan da. (...) Gorabehera ugari bizi ondoren, Armenia aurrerapauso handiak ematen ari da gaur egun. Baina gure herriak ezin du gainera kendu guztiz hainbat hamarkadaz luzatzen ari den guztizko kultura indarkeriaren legatua, beharrezkoa den haustura gauzatu ahal izateko”¹.

Gure elkartearen izena² eta utopiaren etengabeko aipamena ez dira kasualitateak: lurreko paradisuak Armenian kokatzen duen XVIII. mendeko mapa baten aurkikuntzaren ondorioak dira³. Garai hartan, Mendebalde zoragarriaren eta zibilizazio zahar eta liluragarrien irudikapena zuen jendeak. XX. mendea, aldiz, dispersioaren eta isolamenduaren aroa izan zen. SESB erortzearekin batera, unibertsaltasuna, arruntasuna eta modernitate forma batzuk galdu edo betiko hondatu ziren; hortaz, utopia era erradikalean jarri zen zalantzan, ideologia totalitarioak sortu izan dituela onartuta baitzegoen.

Utopia kritikatzek, baina, nolabaiteko ezintasuna sortzen du, eta emantzipazio-konpromiso oro bazterrean uzten du. Egia da historian utopiaz egin den erabilera totalitarioak kritika justifikatu egiten duela; baina horrek ez du inondik ere erronka kolektiboari buruz hausnartzeko beharra deuseztatu behar. Beraz, kritika hori gainditu egin behar da. Izan ere, egungo aldaketa erradikal guztiak globalizazioari leporatzen badizkiogu, klase ekonomiko, politiko eta soziokulturalak paralizatu egiten ditugu. Oraindik izen propiorik ez daukan “post” garai honetan, arriskua izan daiteke independentziaren aukera historikoa egitura publikoen eta gizarte zibilaren ahuleziaren ondorioz bertan behera gelditzea.

Armenia irudi inkoherenteen akumulazioa da, oraindik historia garbirik ez daukan material gordina. Irudi-gidariak, beren arteko harremana eta beren ordena dira etengabe bilatzen ditugunak. Jean-Luc Godardek zera esan zuen bere lanari buruz: «Muntaketa bizitzaren berpizkundea da. Utopia eta biziberritze sentimendua da muntaketak sentiarazten didana». Esperientzia horretan oinarrituta, denboraren eta espazioaren baitako muntaketan sartzen gara. Espazioari dagokionez, lurreko paradisuaren aipamenak Armeniari buruzko irudikapenak ekartzen ditu gogora; izan ere, egun Armeniarentzat Kalifornia dena, garai hartan Mendebaldearentzat Armenia bera zen. Egungo Mendebaldearekiko erakarpena alderantzgarria da, beraz. Denborari dagokionez, Armeniaren irudikapen mitiko hori berreskuratzea, lehen pausoa da iragana era propioan ulertze aldera, eta beraz, hausturak gainditzeko beharrezko pausoa. Paradisuaren mapari egiten diogun erreferentzia estrategia bat da, leku hori irekidura eta onarpen posizioan berreskuratzeko, herri *horren* garapenaren⁴ ardurak kultur alorreko ikuspuntu etiko eta politikoarekin bat egiteko.

Hori dela-eta, sorkuntza artistikoaren baldintza sozio-politikoetatik konturatzeko eta errealitatean bertan oinarritzen den artea sustatzea beharrezkoak dira. Hau da, prozesu sozialetan kokatzen den artea, erabat blokeatuta dirudien egoeretan ateak irekitzen dituen, iraganetik datozen tabuetaz beldurtzen ez dena. Hori da, gure iritziz, Armeniako sortzaile garaikideek aurrean daukaten bidea, kulturaren eremua nazionalismoaren tranpan eta botere berrien mendekotasunean eroriko ez bada.

Laburbiltzeko, globalizazioa aldi berean “aukera” eta mehatxua izan daiteke Armeniako kultura garaikidearentzat. Aukera, batetik, mugak irekitzen baititu, eta beraz, itolarritik ihes egiteko itxaropena pizten baitu. Mehatxua, bestetik, Armeniak erronka horiei aurre egiteko tresnarik ez daukalako, bertako egiturak egokiak ez direlako, eta bere isolamenduak edozein eragin batere zuhurtziarik gabe onartzera bultzatzen duelako. Testuinguru horretan, erresistentziak

nazionalismoarekin nahasteko joera hartzen du.

Armeniako gizartearentzat egokiak diren hainbat gairen gainean bost urtez proiektu puntualak egin ostean (utopia, hiri-espazioa, sexuen berdintasuna, zentroaren eta periferiaren arteko harremana, nahiaren politika dira gai horietako batzuk), Utopianak StegtsaGortsaran sortu du; hau da, literalki, sorkuntza-lantegia: prestaketa-, ekoizpen- eta ikerketa-laborategia.

Funtsezkoa iruditzen zaigu tokiko arte-praktiketan baliabide digitalen erabilera bultzatzea eta garatzea, diziplinarteko hezkuntzarako espazio bat sortuz. Egitura horrek arkitektura institutuarekin, Arte Ederrekin (ikusizko arteekin, zinemarekin) eta atzerriko arte- eta teknologia-ikerketarako egiturekin harremana garatzen du.

Diziplina artistiko bakoitzarentzat, mintegiekin honako hauek landuko dituzte: prozedura historiko eta garaikideen arteko harremana arkitekturan eta ikus-entzunezko arteetan, eta kultura-ikasketen eta baliabide berrien arteko harremana, ez soilik ikuspuntu filosofikotik, baina baita praktikaren bidez ere. Gure helburua digitalaren ulermen sakona lortzea da; hau da, ez bakarrik hainbat adierazpen formatan erabiltzen den tresna pribilegiatu gisan, baizik eta diziplina artistikoak uztartzera bultzatzen duen lotura gisan.

Esperientzia historiko batzuek irudimenaren emankortasuna oztopa dezakete, eta beraz, sorkuntza ahalmenaren funtsa. Kultura bat nola aska daiteke hondamendiaren traumatismotik eta totalitarismotik, zentzu berriak sortzeko? Etengabeko trantsizioan dagoen herri batean gertatzen diren eraldaketa sozial, politiko eta kulturalak hobeto ulertu behar ditugu. Horietan, lehenik eta behin aztertu beharrekoak hiri- eta teknologia-ereldaketarekin erlazioatutako gaiak dira, horiek lagunduko baikaituzte gehien nortasun kultural sobietarrak eta post-sobietarrak ulertzen.

Anna Barseghian-ek Utopiana sortu zuen Stefan Kristensenekin batera, 2001etik aurrera Suitzan eta Armenian ere funtzionatzen duen kultur erakundea. <http://www.utopiana.am/>

CC

Artikulu hau Attribution-NonCommercial-ShareAlike gisako Creative Commons lizentzia baten mende dago. Testuak nahiz itzulpenak kopia, banatu eta jende aurrean erakuts ditzakezu irabazi asmorik gabe baldin bada. Horrez gain, hemendik eratorritako lanik sortzen baduzu, lizentzia beraren mende egin behar duzu.

Lizentzia osorik irakurri nahi baduzu:

http://creativecommons.org/license/index_html?lang=eu

OHAR ETA ERREFERENTZIAK

¹ Hakob Movses, «Contemporary art of Armenia 1980-1995» katalogoaren sarrera, Erevan, 1995.

² Utopianaren Webgunean <www.utopiana.am> 2001az geroztik egin ditugun proiektu guztiei buruzko informazioa eta irudiak ikus daitezke.

³ Mapa horren ereduia Dom Augustin Calmet fraide dominikarraren *Dictionnaire historique et littéral de la Bible* liburuan dago, Parisen argitaratua, 1723an.

⁴ Hemen, “garapen” hitza zentzu zabalean ulertu behar da, eta bereziki, SESB erortzeak eta orduko gertakariak industria suntsitu duten gizarte baten testuinguruan. Lehenik eta behin, kontua hobekuntza ekonomiko eta sozialari zentzu berri bat ematea da, aberastasunak itsuki igoarazten saiatzea baino. Alde horretatik, ezberdintasun gutxi dago produktibismo sobietarraren eta hazkunde ekonomikoaren ezinbestekotasun neoliberalaren artean.